



50144708b0331b017ac07e82b50b0a3aH
<https://udalenegotza.araba.eus/barrundiavaliacionDoc?entidad=BARRUNDIA>

**2024KO AZAROAREN 27KO 678. ALKATETZAKO DEKRETUA**

IKUSIRIK: KATALITURRI ABESBATZA ELKARTEAren helburua abesbatza talde bat eratzea da, Barrundiako eta Donemiliagako udalerrietako pertsonen osaturik.

Helburu hori lortzeko, jarduera hauek egin dira:

- Barrundiako eta Donemiliagako udalerrietako herritarrez osatutako abesbatza sortu izan da.
- Asteroko entseguak burutu dira, ahots askoko kantu-moldean behar besteko gaitasun eta trebezia lortzeko asmoz.

GERTUA IZANIK: Kataliturri Abesbatza Taldearen azken helburu zuzena kanturako bai Barrundiako udalerrian eta baita ere Donemiliagako udalerrian zaletasuna bultzatzea da, hein berean, udalerriri bi horietako eskaintza kulturala egonkortzea.

KONTUAN HARTUZ: KATALITURRI ABESBATZA ELKARTEAK 2024ko urtean 17 emanaldi eman ditu, honako hauek izanik:

- 2024ko urtarrilaren 02an: Gabon kantak Gasteizko kaletatik.
- 2024ko otsailaren 02an: Elkarrekin abesten, Gasteizko Dendabara Aretoan.
- 2024ko apirilaren 20an: Meza Gasteizen.
- 2024ko maiatzaren 17an: Topaketa korala Barrundiako Eskola Txikiko txikiekin eta gurasoekin.
- 2024ko maiatzaren 31n: Ahotsak arkupenaren Gasteizko katedral Zaharrean.
- 2024ko ekainaren 23an: Meza eta Kontzertua Ozaetan.
- 2024ko ekainaren 30ean: Meza eta Kontzertua Moredan, Vital por Alava.
- 2024ko uztailaren 20an: Kontzertua Galarretan.
- 2024ko irailaren 07an: Meza eta Kontzertua Arantzazun.
- 2024ko irailaren 14an: Ura berebidean ekimenean parte hartzea.
- 2024ko irailaren 20an: Ozaetako txikiekin koro topaketa.
- 2024ko irailaren 21ean: Kontzertua Askoko orfeoiaekin.
- 2024ko urriaren 19an: Kontzertua Otazan Tantak taldearekin.
- 2024ko urriaren 27an: Lautada Eguna Ozaetan.
- 2024ko azaroaren 16an: Meza eta Kontzertua Mendixurren.
- 2024ko abenduaren 14an: Araban Zehar Ordoñan.
- 2024ko abenduaren zehar: Gabon kantak Gasteizen.

GERTUA IZANIK: Gerardo Olabe Martinez de Albeniz jaunak, KATALITURRI ABESBATZA ELKARTEA erakundearen ordezkarietan, 2024ko azaroaren 25eko (2098 sarrera-erregistroa) idazkiaren bidez, abesbatza horrek



2024ko ekitaldian edukitako gastuak zuritzen ditu. Zuritutako zenbatekoa 5.643,51 €takoa da.

ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENA.- KATALITURRI ABESBATZA ELKARTEA erakundeari aurrez aipatutako lan-ildoak udalerrian gauza zitzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 2.000,00 eurotako dirulaguntza onartzea (2024ko Aurrekontu Orokorretako 334.481.000 partidaren pentzutan).

BIGARRENA.- KATALITURRI ABESBATZA ELKARTEA erakundeari 2.000,00 €tako dirulaguntza berehala ordaintzea.

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau KATALITURRI ABESBATZA ELKARTEA erakundeari jakinaraztea.

Alkateak agin eta sinatu du, nire, jarduneko idazkariaren aurrean, eta nik horren fede ematen dut.

ALKATEAK,

JARDUNEKO IDAZKARIAK,



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
<https://udalenegotza.araba.eus/barrundia/validacionDoc?entidad=BARRUNDIA>

50144708b0331b017ac07e82b50b0a3aH

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
LEIRE FERNANDEZ MATEOS	Jarduneko Idazkari-kontuhartzailea / Secretaria Interventora Accidental	27/11/2024 10:50
IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Alkatea / Alcalde	27/11/2024 10:56